

OÑATIKO UDAL GOBERNUAREN OHARRA

Azken 10 urteetako exekuzio maila altuena izan duen aurrekontua izan da 2017koa. (%91)

2017ko aurrekontuaren likidazioa amaitu berritan, honoko balorazioa egiten du Oñatiko Udal Gobernu Taldeak:

2017ko aurrekontuaren exekuzio maila azken 10 urteetako altuena izan da. Exekuzio maila orokorra %91koa izan da eta inbertsioen exekuzioa % 74,4koa.

Azken 10 urteetan Udaleko zerbitzu eskeintza asko zabaldu da eta adibide zerrenda luzea aipatu liteke: Gizarte arloko diru laguntzen indartzea, Landa eremuko zerbitzu eta diru laguntzak, Udaleko kale garbiketa eta mantenu zerbitzu publikoak, berdintasun eta parte hartze zerbitzu berriak, kultur, kirol eta hezkuntza arloan zerbitzu nahiz proiektu berriak ... Herrtargoari zuzenduriko eskeintza zabalitze horrek gastu arruntaren igoera bat suposatu du pentsatzekoa den moduan. Hori horrela izanik ere, azpimarratzekoa da bilakaera hori oso modu orekatuan egin dela. Udaleko finantzen balantza modu berezian zaindu da.

Horren adierazgarri dira 2017ko aurrekontuaren itxiera datuak. Sarrera arrunt eta gastu arrunten arteko diferentzia positiboa, 2 milio eurokoa izan da.(aurrekontu orokorra 18,38 milioi eurokoa). Datu azpimarragarria da, gaur egun oraindik maila honetako aurrezki arrunt positiboa mantentzea; izan ere azken urte hauetan eraikuntza sektoreko sarrera handiak iada desagertuak dira.

Esan bezala,finantza oreka hori mantentzeko helburuari dagokionean, sarrera arrunten kapituluak garrantzi berezia du. Puntu honetan, 10 urteko epealdian arrazoi nagusiak bilatzerakoan, aipagarriak lirateke Foru fondoa, etxebizitza zergadunen hazkunde bat (urbanizazio berriak), eta fiskalitate neurri berrien aplikazioa: Jarduera ekonomikoen zergaren formulazio berri bat, katastroaren errebisioa, etxebizitza hutsei aplikaturiko zergapetzea....

Bestalde,Udalaren zorpetze bizia (900mila euro) %5ekoa da, bere mailako udalen batzbestekoaren erdia (%12), eta Gipuzkoako udal multzo osoaren batz bestekoa %28koa. Datu guzti hauek adierazten dute Oñatiko Udalaren egoera ekonomikoa zein den.

Hau horrela izanik, 2018ko Udal Aurrekontuen onarpenean adierazi bezala, egoera ezin hobea da Udalak aurreikusita duen urteanitzeko inbertsio plangintza aktibatzeko.